

EUSKAL HERRIA 2020 (III) > OSAGARRIA ETA EGOERA SOZIALA

Gazteak falta

Ipar Euskal Herriko populazioa gorantz ari da, baina gazte kopuruak behera egin du

E. BIDEGAIN

Baiona

Gero eta biztanle gehiago dago Ipar Euskal Herrian. Baina gero eta gazte gutxiago. Alderantziz, 60 urtetik gorakoek kopurua arras handia da, %27,4koa baita oro har, eta %31,1ekoa barnealdean. Zuberoko eta Baigorri-Garazi eskualdeetako zahartzea gazteak herri-ki joatearen ondorioz gertatu da. Miarritzen eta Donibane Lohizunen ere zahar anitz dago, baina kanpotik jende asko datorrelako erretreta bertan pasatzera.

Gazteen kopurua, aldiz, %11 apaldu da 1990 eta 1999 bitartean. Gazteak Baionan eta Angelun bizi dira gehienbat, eta barnealdean gazteak husten ari da. Haurrak dituzten guraso gazteen proportzio handienak Uztaritze, Bastida, Hiriburur, Hazparne, Hendaia eta Ipar Baionako kantonamenduetan dira. Oro har, lehen baino gazte gutxiago gelditzen da bere herrian, eta lehen baino gazte gehiago dator Ipar Euskal Herriko kanpoko herrietatik. Kanpotik datozen gehienak Baionan, Angelun, Miarritzen eta Hendaian bizi dira.

30-40 urte bitarteko jendeen kopurua igoenez, haurren kopurua nahiko egonkorra da. Ipar Euskal Herria kanpotik lanera etorri diren gaztetu dute biztanleria azken urteetan. 1998 arte sortze kopurua etengabe apaltzen ari zen, 1975etik landa. 1999tik goiti gorakada bat gertatu da, 2000. urtean jauzi handi batekin. Geroztik urte urte sortze kopurua gorabeheratsua izan da, baina 1975eko heinaren inguruan dabil.

Gainbehera handia izan da, aldiz, 19 eta 25 urte bitarteko gazteetan. Bederatzi urteko epean, 20 urteko gazteen kopurua ia %25 apaldu zen. Ikerketa egin dutenek ez dute esplikaziorik, oraingoz. Az-

Lehen baino gazte gutxiago gelditzen da bere herrian, eta gero eta gehiago datoz kanpoko herrietatik

Goi mailako ikasketak egiten dituzten ikasleen kopurua %50eko heinera igo da azken urteetan

Nesken artean ikasketa maila handiagoa izanagatik, langabezia tasa ere handiagoa dute

terketa sakonagoaren beharra aipatu dute. Egoera larriena Atharratzeko kantonamendukoa da, 1990tik 1999ra bitartean 15-29 urte arteko gazteen %32 galdu baititu. 1999an 500 gazte baino gutxiago bizi zen eremu hartan.

Mutiko baino neska gehiago joaten da Ipar Euskal Herriko. 1999an gizon baino 1.899 emazte gutxiago zegoen Ipar Euskal Herrian. Fenomeno horri bi azalpen aurkitu dizkiote. Batetik, Baionan eta Angelun goi mailako ikasketak zientifikoaren sareak irekitzeak mutikoak erakarri dituela bereziki. Bigarren arrazoia litzateke nesken ikasketa maila mutikoena baino lasterrago igo dela. Unibertsitateko ikasketak gehienak Ipar Euskal Herriko kanpo jarraitzen dituzte.

GAZTE IKASIAK. Ikasketak jarraitzen dituzten gazteen kopurua anitz goratu da hamar urteko epean. Angeluko 19-24 urte arteko gazteen ia %60 ari dira ikasketak egiten. Miarrizte ere kopuru bertsua dauka. Baiona, Hiriburur eta Uztaritzeko eskualdeetako gazteen erdiek baino gehiagok ikasketak jarraitzen dituzte. Goi mailako ikasketak egiten dituen gazte kopuru apalena Baigorriko kantonamenduan dago, %35ekin. Hein bertsuan dauka Iholdikoa eta Bidaxuneko. Baiona, hamar urte, ikasketak egiten dituzten gazteen kopurua izugarri igo da barnealdean, 1990ean laurdena baizik ez baitzen joaten unibertsitatera.

Bitxikeria bat, ordea, diplomak dituzten gazte kopuruei so eginez gero. Ipar Euskal Herrian bizi eta ikasketak bukatu dituzten gazteen %53k batxilergoa baino hein apalagoa diplomak ditu. %8 baizik ez dira baxotik landa hiru urte edo gehiagoko heima dutenak. Horrek ez du erran nahi Ipar Euskal Herriko ikasleek ez dituztela azterketak gainditzen, baizik eta diplomak lorturik Ipar Euskal Herriko kanpo lan egiten dutela. Unibertsitate mailako diplomak lortzen dituztenetan, mutiko baino neska gehiago dago. Ez, ordea, baxoa baino hein apalagoa dutenetan.

Ikasketa maila handiagoa dute neskek, baina baita langabezia tasa handiagoa ere. 1999an 15 eta 29 urte arteko nesken %25,8 zeuden langabezia; mutikoak %18,1 ziren. Aldea handiagoa zen 20-24 urte artekoetan, nesken herena langabezia baitzen. Emazte gazteak hirugarren sektoreko langileak dira, hala nola 15-29 urte arteko emazteen %60 bat. Gizon gazteen erdiak baino gehixeago, aldiz, beharginak dira. Azipimarratzekoa da laborari kopurua oso apal jaitzi dela adin tarte horretan, hala nola %2,6ra.

Bihar: Goi mailako irakaskuntza



ZKA IROZ

Bazterketa soziala hazten ari da

Prekaritatea handitzen ari da eta hori geldiarazteko neurriak hartzeko beharraz ohartu dira

E. BIDEGAIN

Baiona

Prekaritatea handitzen eta larriagotzen ari da Ipar Euskal Herrian. Barnealdean hilabete sari apalak dituzte, eta bizilekuetan nabari da prekaritatea. Langabezia tasa apala da, baina gogor jotzen du 50 urtetik gorakoek artean. Kostaldean irabazien arteko desoreka handiak daude, gutxi dira bizileku baten jabe, iraupen luzeko langabezia tasa handia da eta zenbait auzotan zailtasunak metatzen dira.

Hautura sozialerako arriskuak handitzen ari dira. Barnealdearen eta kostaldearen arteko hausturaz aparte, kostaldean berean haustura sozialak gertatzen ari dira eremu edo auzoen artean. Alde batek prekaritatean bizi direnak, bes-

tetik aisetasun handian bizi direnak daude.

Euskal Herria 2020 txostenak finkatu erronketariko bat prekaritatea haustea eta oinarriko eskubideak bermatzea da. Horretarako, prekaritatean direnak bakar-dadetik ateratzen laguntzeko premia ohartu dira. «Maiz, prekaritatean direnak sozialki edota familia aldetik bakartuak dira, arazo psikikoak dituzte, beren baitako konfiantza falta dute, eta horrek oraino gehiago zailtzen du lan munduan integratzea».

LANA, ETXEA ETA GARRAIOA. Prekaritateari buru egitea arlo askotan lan egitea dela diote. Prekaritatearen maila gorena etxerik gabe bizi direnena da. Ez dute inolako laguntzarik. Haien kopurua handitzen ari da Ipar Euskal Herrian, eta baita egoera horretan diren gazteena ere. Horietatik, «bizilekua eta elikadura dira lehentasuna». Horrekin osasunerako lehen oinarria ziurta daiteke, «gorputzeko higienaren eta janariaren» bi-

dez. Helburu horrekin, gizarte zerbitzuek inplikatu behar dutela dio txostenak.

Langabezia direnak eta RMI edo gutxieneko errentatik bizi direnak ere egoera txarrean daude. Haiegi begira hiru lehentasun finkatu ditu *Euskal Herria 2020*-ek. Arazopsikikoen eta alkoholismoaren artatzeko beharraz eta etxebizitzaren arazoaz gain, lan munduan sartzeari eman diote garrantzia. «Lan munduan sartzeari begirako politikak lanera bultzatzeari eman badio ere lehentasuna, beste traba batzuk ere badaude». Ez da nahikoa jende horiei lana proposatzea. Garraioaren arazoa, haurren zaintza eta kualifikazio falta ere kontuan hartu behar dira, besteak beste.

«Langile pobreez» ere arduratzeko beharra aipatu dute. Alabaina, lan kontratu prekarioetan ari diren arazo larria dute bizileku baten aurkitzeko edota haurrak zaintzeko, lan baldintzekin eta ordutegiaren nekez har baitzakete berek haurren ardura guztia.